



EBAZPENA, 2023ko azaroaren 20koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez irekitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendaren 2024/2025 ikasturteko urteko birbaremazio-prozedura.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan pertsonal irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakaskuntza-eta hezkuntza-pertsonalaren hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera, urtero, zerrendetan dauden izangaien merezimenduak birbarematu behar dira.

Birbaremazio-prozesua hasteko, izangai bakoitzaren eskura jarriko da egindako birbaremazioaren emaitzak dituen fitxa, eta, ados ez badago, alegazioak aurkezteko epe bat ezarriko da. Epe horren barruan, zerrenda orokorrean dauden pertsonak aukera izango dute aukerak aldatzeko, merezimendu berriak alegatzeko eta dokumentazio berria aurkezteko. Zerrenda berezietako pertsonak (zerrenda orokorrean ez daudenek) ere aukera izango dute alegazioak egiteko eta merezimendu berriak aurkezteko; baina, ordezkapenak egiteko aukerei dagokienez, zerrenda berezian sartzeari eragin zuen zerrenda irekitzean adierazi zituztenekin jarraituko dute.

Prozedura horretan, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoetako zerrendak eta Lanbide Heziketako Sektore Berezietako Irakasle Espezialisten Kidego berrikoak berrantolatuko dira, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 7ko Aginduan ezarritakoa betez (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen agindua seigarren aldiz aldatzen da). Egoera horrek, halaber, eragina du merezimenduen baremoan, aipatutako aginduaren laugarren eta bosgarren xedapenetan adierazten den bezala.

Orobat, prozedura horretan, eta, ondorioz, horren ondoriozko zerrendetan integratuko dira, aurreko prozeduraren eta egungo birbaremazio-prozeduraren artean ebatzitako zerrenda-irekieretan behin betiko onartutako pertsonak, bai eta 2023ko abuztuaren 31ra arte irekita mantentzen diren zerrendetan sartzeko eskaera aurkeztu eta sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak ere.

Bestalde, honako kasu hauetan dauden pertsonak baztertu egingo dira: erretiroa, heriotza edo ezintasun iraunkorra.

Horrenbestez,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Irekitzea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendaren 2024/2025 ikasturteko urteko birbaremazio-prozedura.

Bigarrenena.- Izangaien fitxak argitara ematea, 2023ko azaroaren 20tik 27ra, biak barne. Fitxa horietan, pertsona bakoitzaren datuak, ordezkapen-aukerak eta merezimenduen birbaremazioa jasoko dira.

Interneteko helbide honetan ikusi eta inprimatu ahal izango dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin - Ordezkapen izangaien birbaremazioa – Izangaiaren fitxa. Pasahitza gogoratu ezean edo galdu baduzu, beste pasahitz bat lortu ahal izango duzu <https://hezigunea.euskadi.eus/es> atalean - Pasahitza ahaztu duzu.

Hirugarrena.- Epe bat irekitzea 2023ko azaroaren 20tik 27ra, biak barne, identifikazio-datuak eta aukerak aldatzeko, aldatutako aukerekin edo merezimendu berriekin lotutako dokumentazio berria aurkezteko edo egoki iritzitako alegazioak egiteko.

Jarduketa horiek guztiak telematikoki egingo dira, helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – Aukerak aldatzea/dokumentazioa entregatzea.

Gorde eta erantsi nahi den dokumentazio guztiaren sarrera-erregistroa egiteko, dagokion botoia sakatu behar da, "**Dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea**" izenekoa.

Laugarrena.- Zerrenda berrietan sartzeko baldintzak eta merezimenduak 2023ko abuztuaren 31n eduki behar dira.

Bosgarrena.- Ondoren adierazten den dokumentazioa telematikoki entregatuko da, honela:

* 1.1 atalean aipatutakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan eta **ikastetxe pribatuetan** irakaskuntza-esperientzia egiaztatzeko: lan-kontratua, NANA eta lan-bizitza aurkeztuko dira adierazitako interneteko helbidearen bidez. Salbuespen gisa, lan-kontratua aurkeztu ezin duenak ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria entregatuko du, Ikuskaritzaren oniritzirik gabe. Izan ere, ziurtagiri hori Hezkuntza Sailak jasoko du zuzenean. Azken kasu horretan lan-bizitza ere aurkeztu beharko da.

* **Argitalpenak** entregatzea (Arte dramatikoak eta Dantza espezialitateetan): adierazitako interneteko helbidearen bidez, azalaren kopia, lehen 10 orrialdeak eta ISBN edo ISSN agertzen den orria entregatuko dira. Beharrezkoa bada, gerora, argitalpen osoa aurkezteko eskatu ahal izango da.

Gorde eta erantsi nahi den dokumentazio guztiaren sarrera-erregistroa egiteko, dagokion botoia sakatu behar da, "**Dokumentazioa entregatzen amaitzea eta erregistratzea**" izenekoa.



Seigarrena .- Erlijio Katolikoaren zerrendan dauden izangaien **Missio Kanonikoa** honela berritu edo eskatuko da:

Izangaiek berritzea eskatu beharko diote erlijioa ematen jarraitu nahi duten lurralde historikoko Gotzaindegiari, ebazpen honen hirugarren atalean ezarritako epearen barruan, honako helbide elektroniko hauen bidez:

Araba: educacion@diocesisvitoria.org

Bizkaia: hezkontza@bizkeliza.org

Gipuzkoa: irakaskuntza@elizagipuzkoa.org

Era berean, zerrenda horretan lehen aldiz izena eman nahi izanez gero, Missio kanonikoa eskatu beharko da adierazitako helbide elektronikoen bitartez, eta hirugarren atalean ezarritako epearen barruan entregatu.

Zazpigarrena.- Ordezkapenak egiteko izangaien zerrendan honako hauek sartzea:

- 2022/2023 ikasturtean irekitako zerrendetan onartutako pertsonak, baldin eta 2023/2024 ikasturterako birbaremazio-prozeduran sartu ez baziren.
- 2023ko abuztuaren 31ra arte (egun hori barne) eskabideak aurkeztu dituzten pertsonak, baldin eta zerrenda irekietan sartzeko badira eta sartzeko baldintzak betetzen badituzte. Baldintza horiek ebazpen honen I. eranskinean daude adierazita (*).

(*) I. eranskina kontsultatu: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> – Ordezkapen izangaien birbaremazioa

Zortzigarrena.- Irekita dauden zerrendei dagokienez, ebazpen honen III. eranskinean argitaratzea 2023ko abuztuaren 31ra arte zerrenda horietan sartzeko eskaera aurkeztu duten baina sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen zerrenda. Pertsona horiek egokitzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte birbaremazio-prozesu honen barruan, ebazpen honen hirugarren atalean adierazitako epean (***)).

(***) III. eranskina kontsultatu: <https://www.euskadi.eus/rebaremacion-d-2024-2025/web01-a3holair/es/> – Prozesuaren hasiera

Bederatzigarrena.- Ebazpen honen II. eranskinean (**) argitaratzea erretiro, heriotza edo ezintasun kasuetan egoteagatik zerrendetatik kanpo geratu behar duten pertsonen zerrenda.

(*) II. Eranskina kontsultatu: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> – Ordezkapen izangaien birbaremazioa



Hamargarrena.- 2024/2025 ikasturtean nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsi eta jardunean jarraitu nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Ebazpen honen hirugarren xedapenean adierazitako epean jardunean jarraitzeko eskatzea, eta, gainera, aipatutako adina betetzen dutenetik izendapen jarraituak izatea.
- 65 urterekin, gizarte-aurreikuspeneko erregimena arautzen duten arauen arabera, pentsioaren % 100 sortzeko behar diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak ez egiaztatzea.

Jardunean jarraitzeko, hirugarren atalean adierazitako helbidean eskatu beharko dute "Beste datu eta/edo alegazio batzuk" atalean, hain zuzen. Horrez gain, aurkeztu beharko dute Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria (lan-bizitza).

Hamaikagarrena.- Zerrendetatik kanporatzea karrerako funtzionario izendatutakoak, 2020ko otsailaren 18ko, Hezkuntzako sailburuaren Aginduak deitutako hautaketa-prozeduraren ondorioz. Agindu horren bidez, ezarri dira Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak. Kanporatzea egingo da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.1.b) artikuluan oinarrituta. Hala, karrerako funtzionario zein irakasle-kidegotan izendatuak izan diren, bada horri dagozkion espezialitateen zerrendetatik kanporatuko dira.

Halaber, birbaremazio-prozesu honetan, kanporatuko dira 2023/2024 ikasturtean karrerako funtzionario izendatutakoak iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan. Prozesu hori Hezkuntza Sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitu den. Kanporatzea egingo da aurreko paragrafoan azaldu bezala eta karrerako funtzionario izendatu eta lanpostuaz jabetu ondoren.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 20a